

Diputatu Nagusiaren Sailak 9 milioi euro bideratuko ditu Aiaralderako bi inbertsio-planetarako eta Euskadiko *Next Generation* proiektuetarako

Ramiro Gonzálezek, Batzar Nagusietan egindako agerraldian, bere sailak 2022rako Aurrekontuen proiektuaren barruan dituen partidak zehaztu ditu

Vitoria-Gasteiz, 2021eko azaroak 22. Ramiro González Arabako ahaldun nagusiak hasiera eman dio gaur goizean Batzar Nagusietan foru diputatuen agerraldi-sortari, Arabako Lurralde Historikoaren 2022rako, sail bakoitzean, Aurrekontuen Foru Arauaren Proiektuaren berri emateko asmoz. Bere sailaren partiden barruan, Arabako agintari nagusiak bi inbertsio-planetara bideratuko diren 9 milioi euroak nabarmendu ditu: Aiaralderako plana eta Inbertsioen Erakunde arteko Plana, 2 eta 7 milioi euroko zenbatekoarekin, hurrenez hurren.

“Inbertsio hauek, aurrekontuan dauden beste batzuekin batera, Lurraldearen eraldaketa bultzatzeko eta Araba berritzaileagoa, jasangarriagoa, erreferenteagoa eta aitzindariagoa bihurtzeko balioko dute”, ziurtatu du ahaldun nagusiak, ostean, hauxe gaineratzeko, aurkeztu berri diren aurrekontuak “ilusionagarriak eta asmo handikoak dira, Aldundiaren historiako inbertitzaileenak eta altuenak, eta horrexegatik, Arabarako garai berri bati paso emango die”. Horrela, Ramiro Gonzálezek agerraldia hasi du Kabinete eta Komunikazio, Berdintasun eta Giza Eskubide eta Euskara eta Gobernu Irekiko zuzendaritzen partida garrantzitsuenak aletuz.

Diputatu Nagusiaren Sailak, 1. kapitulua kontuan hartu gabe, 20.755.693 euroko aurrekontua izango du 2022rako. Kopuru orokor honek gora egin du aurreko ekitaldiarekin alderatuta, batez ere Aiaralderako plana eta Inbertsioen Erakunde arteko Plana jasotzen dituelako, 2 eta 7 milioi euroko zenbatekoarekin, hurrenez hurren.

Aiaraldea Planari dagokionez, Ramiro Gonzálezek gogorarazi du duela hilabete batzuk prozesu bat hasi zela Jaurlaritzaren eta Arabako eta Bizkaiko Aldundien artean, Aiaraldea eskualdeko plan estrategiko baten bidez suspertzeko. Plan hori Eusko Jaurlaritzak Berpiztu Planaren barruan hasieran bultzatutako plan berezi baten emaitza da, eta 24 milioi euroko zuzkidura du bailara horretarako. Arabako Aldundia hausnarketa-prozesu honetako buru da, erronka eta ekimen estrategiko nagusiak identifikatuz. Orain, Aurrekontuen Proiektuan aurkezten den 2 milioi euroko zuzkidura ekonomikoaren eskutik, Aiara haraneko udalerriak jomuga dituzten proiektuetarako laguntza indartu nahi da.

Instituzio arteko Planaren kasuan, kontuan hartuko diren 7 milioi euroak, Eusko Jaurlaritzak eta foru-aldundiek Euskadiko *Next Generation* delakoan identifikatutako inbertsio-proiektuak babesteko egingo duten akordioaren ondorio dira.

Kabinete eta Komunikazio Zuzendaritzaren barruan, Arabako talentuari eta ekintzailtzari lotutako beste partida batzuk aipatu ditu ahaldun nagusiak. Mobility lab eta Berrikuntza Irekiaren Zentroa ere aipatu ditu, urratsak ematen jarraitzen duten bi proiektuak, alegia.

Berdintasuna eta Giza Eskubideak

Berdintasunerako eta Giza Eskubideetarako Zuzendaritzari atxikitako jardueren artean -3.398.456 milioi euroko aurrekontua duena-, Arabako Lurralde Historikoan Gerra Zibilean eta erregimen diktatorial frankistan izandako giza eskubideen urraketa ezagutaraztea helburu duen memoria historikoa berreskuratzeko proiektua nabarmendu du ahaldun nagusiak. Eta, testuinguru horretan ere, Martxoak 3 Fundazioaren sorrera aipatu du.

Lurraldeko aniztasunaren kudeaketa, Arabako agintariarentzat, apustu garrantzitsua da kulturen arteko bizikidetzan. Horregatik, garrantzitsuak dira “sentsibilizaziora eta zurrumurruek, estereotipoen eta aurreiritzien aurkako borrokara bideratutako ekintzak. Azken batean, topaguneak eta harremanetarako guneak sustatuko dituzten jarduerak abiaraztea, genero-ikuspegia eta giza eskubideak zeharka txertatuz.

Eta berdintasunari dagokionez, berau lortzeko proiektuak garatu ahal izateko udalei, koadrilei eta irabazi-asmorik gabeko erakundeei baliabideak emateaz gain, Ramiro Gonzálezek iragarri du IV. Berdintasun Planaren ebaluazioa amaituko dela eta V. Plana egingo dela.

Euskara eta Gobernu Irekia

Euskararen eta Gobernu Irekiaren zuzendaritzari lotutako berrikuntzen artean – 1,4 milioi euro inguruko aurrekontua izango du –, ahaldun nagusiak Arabako lehenengo Aurrekontu Parte-hartzaileak martxan jartzea planteatu du. Aurrekontu horiek “Arabako eta Arabako herritarren parte-hartze zuzena bilatzen dute Lurraldearen eta Kuadrillen behar eta lehentasun nagusiak ezartzerakoan”. Ekimenaren asmoa da Foru Aldundiaren urteko aurrekontuan gizarte-babes handiena biltzen duten beharrak sartzea, eta lortutako konpromisoen jarraipena egitea.

Eta euskararen sustapenari dagokionez, hizkuntzari balio erantsia ematen dioten Arabako enpresen sarea zabaltzeko lanean jarraitzeaz gain, zuzendaritza honek “ahalegin erantsi bat egingo du gazteek espazioak berreskura ditzaten, bai kirolaren, kulturaren eta denbora librearen esparruan, harremanak euskaraz izan ahal izateko”. Azkenik, ahaldun nagusiak keinu egin die euskararen alorrean Lurraldean egingo diren hitzordu garrantzitsuenetako biri: martxoaren 31n Amurriotik, Aiarako udalerritik, abiatuko den Korrikaren 22. edizioari eta 2022an bere hirugarren edizioa ospatuko duen Euskaraldiari.